



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.araba.eus

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila
Departamento de Hacienda
Finanzas y Presupuestos

Ogasun Zuzendaritza
Dirección de Hacienda

ERRENTA 2017

Aplikazioa instalatzea



ERRENTA 2017

ERRENTA 2017


PROGRAMEN ESKAKIZUNAK

- 1.- Windows Vista sistema eragilea (Internet Explorer 8 edo goragoko bat), Windows 7, Windows 8 edo Windos 10.
- 2.- Acrobat Reader DC.
- 3.- Softwarea: Microsoft .NET Framework 4.5.
- 4.- Interneteko konexioa eduki behar duzu programa erabiltzeko.

Oharra: Laguntza programa lehen adierazitako eskakizunen arabera probatu da eta ondo dabilela ziurtatu da. Beste eskakizun batzuekin exekutatzuz gero, ez da bermatzen ondo ibiliko denik.


Errenta 2017 instalatzea

- Deskarga ezazu instalazio programa www.araba.eus (Foru Ogasuna - Errentaren eta Ondarearen gaineko zergak).
- Exekutatu InstaladorRenta2017.exe fitxategia deskargatu duzun direktoriotik.
- Ondoren, Errenta 2017 instalatzeko prozesua hasiko da. Sakatu "hurrengoa" botoia prozesuak aurrera egin dezan (1. irudia).




(1. irudia)

- Idatzi Errenta 2017 programa zein direktorio edo karpetatatan instalatu nahi duzun. Direktorio lehenetsia hau da: c:\Rentaraba\Renta2017\Aplicacion. Aldatu nahi izanez gero, sakatu "aldatu" eta hautatu instalatzeko beste leku bat edo aldatu karpeta testu koadroan. Karpeta hori ez bada existitzen, berez sortuko da. Nahi baduzu, idatzi helmugako direktorioaren izena bide izen edo path osoa emanez. Ezin da instalaziorik egin unitatearen erroan. Windows Vista eta Windows 7 edukiz gero, instalazioa ezin da hemen egin: C:/programa fitxategiak (2. irudia)



(2. irudia)

- Aurreko urrats horiek egin ondoren, sakatu “hurreenoa” botoia. instalazioak aurrera egin ahala, leiho honetako progresio barrak aurrera egingo du instalazio prozesua burutu arte (3. irudia)




(3. irudia)

- Instalazioa amaitzeko, sakatu “amaitu” botoia (4. irudia)



(4. irudia)

- Instalazio prozesua amaitutakoan, Errenta 2017rako zuzeneko sarbide bat gehituko zaio Windowsko Hasi menuko Rentaraba programa multzoari, eta aplikazioa abiarazteko balioko du (5. irudia).



(5. irudia)


Errenta 2017 aplikazioak behar dituenak

Pantaila bereizmena 1024x768 izan beharko da.

Eskualdeko konfigurazioan, 'Koma' (,) hautatu beharko duzu zenbakien ikur dezimal moduan, eta, zenbakietan milakakoak bereizteko, 'puntu' (.)

Errenta 2017, hasierako konfigurazioa


- Errenta 2017 aplikazioa lehenengoz abiaraztean, programaren hasierako konfigurazioaren pantaila aterako da. (12. irudia)



(12. irudia)

Norbanakoa


- Norbanakoa bazara, hautatu 'instalazio mota' 'norbanakoa' eta sakatu 'gorde'. Hemendik aurrera, Errenta 2017 programa erabiltzen hasteko moduan zaude (13. irudia)



(13. irudia)


Gestoria/Aholkularitza

- Aholkularitzako edo gestoriako erabiltzailea bazara, hautatu 'instalazio mota' 'Gestoria/Aholkularitza' (14. irudia).



(14. irudia)

- Datu basea disko gogor lokalean instalatu nahi baduzu, hautatu 'Ez' 'Erabili sareko datu basea' aukeran, eta irakurri postuaren etiketa barra kodearen irakurgailuarekin. Sakatu Gorde. (15. irudia).



(15. irudia)

- **Datu basea sarean instalatu nahi baduzu**, hautatu 'Bai' 'Erabili sareko datu basea' aukeran, hala zerbitzarian, nola postuetan. Zerbitzarian, adierazi non dagoen kokatuta datu basea PC horretan (adib: C:\rentaraba\renta2017\Aplicacion\Bd\BdDatosRenta17.sqlite) eta irakurri postuaren etiketa barra kodearen irakurgailuarekin. Ondoren, postu batzuetan eta besteetan, hautatu 'Bai' "Erabili sareko datu baseak" aukeran, eta adierazi zein bide edo path dagokion zerbitzarian datu basea dagoen lekura iristeko (adib. E:\rentaraba\renta2017\Aplicación\Bd\BdDatosRenta17.sqlite) dela zuzenean idatziz (16. irudia), dela 'Datu basearen bide-izena' botoia sakatuz, eta kokalekua sarean zehar bilatuz (17. irudia). Azkenik, irakurri postuaren etiketa barra kodearen irakurgailuarekin eta sakatu 'Gorde'.

Impuesto sobre la renta de las personas físicas

Konfigurazioa

Instalazio mota * Gestoria/Aholkularitza

Sareko Datu-Basea erabili: ☒

Datutegiaren bide-izena: * 

Adi! Sareko datu basean, aukeratu behar duzu zerbitzarian kokatuta dagoen 'BdDatosRentaPatrimonio17.sqlite' fitxategia. Argibide gehiago nahi izanez gero, kontsultatu Leame.pdf-a, laguntza programa zein web orritatik deskargatu den, han eskura dagoena.

Finantza Entitate edo Gestoria bada, identifikatu lanpostua barra-kodearen irakurgailuarekin.

Jatorria *

Postua *  *****

Instalazio mota

☒ Ez erabili proxy

☐ Internet Explorer konfigurazioa erabili


☐ Konfigurazio pertsonalizatuta erabili

 konexio probatu

 Gorde  Kantzelatu

Euskara


(16. irudia)



(17. irudia)

Finantza erakundea

- Finantza erakundea bazara, hautatu 'Instalazio mota' n 'Finantza erakundea'.
- Datu basea disko gogor lokalean instalatu nahi baduzu, hautatu 'Ez' 'Erabili sareko datu basea' aukeran, eta irakurri postuaren etiketa barra kodearen irakurgailuarekin. (Irakurgailua, berriz, teklatua konektatuta dagoen serieko atakan egon beharko da instalatuta). Sakatu "Gorde". (18. irudia).



(18. irudia)

- **Datu basea sarean instalatu nahi baduzu**, hautatu 'Bai' 'Erabili sareko datu basea' aukeran, hala zerbitzarian, nola postuetan. Zerbitzarian, adierazi non dagoen kokatuta datu basea PC horretan (adib: C:\rentaraba\renta2017\Aplicacion\Bd\BdDatosRenta17.sqlite) eta irakurri postuaren etiketa barra kodearen irakurgailuarekin. Ondoren, postu batzuetan eta besteetan, hautatu 'Bai' "Erabili sareko datu baseak" aukeran, eta adierazi zein bide edo path dagokion zerbitzarian datu basea dagoen lekura iristeko (adib. E:\rentaraba\renta2017\Aplicación\Bd\BdDatosRenta17.sqlite) dela zuzenean idatziz (19. irudia), dela 'Datu basearen bide-izena' botoia sakatuz, eta kokalekua sarean zehar bilatuz (20. irudia). Azkenik, irakurri postuaren etiketa barra kodearen irakurgailuarekin eta sakatu 'Gorde'.

Impuesto sobre la renta de las personas físicas

Konfigurazioa

Instalazio mota * Banku

Sareko Datu-Basea erabili: ☒

Datutegiaren bide-izena: *

Adi! Sareko datu basean, aukeratu behar duzu zerbitzarian kokatuta dagoen 'BdDatosRentaPatrimonio17.sqlite' fitxategia. Argibide gehiago nahi izanez gero, kontsultatu Leame.pdf-a, laguntza programa zein web orritatik deskargatu den, han eskura dagoena.

Finantza Entitate edo Gestoria bada, identifikatu lanpostua barra-kodearen irakurgailuarekin.

Jatorria* Postua* Bulegoa

Instalazio mota

☒ Ez erabili proxy
☐ Internet Explorer konfigurazioa erabili
☐ Konfigurazio pertsonalizatuta erabili


konexio probatu

Gorde Kantzelatu

Euskara

mundia de Álava

(19. irudia)



(20. irudia)